







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %7,1 egin zuen behera martxoan, 2014. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %4 jaitsi zen, etxeokan %17,8 eta zerbitzu alorrean %18.

Lehen hiruhilekoan izandako kontsumoak %1,3 egin zuen gora; industrian %2.2 jaitsi zen, zementu eta karea sektoreetan, berriz, %13,9 igo zen, baita itsas eraikuntza eta konponketa (%26,4), siderurgia eta galdagintza (%2,2) sektoreek ere gora egin dute. Behera egin dutenak, ordea, beiragintza (%12,5), papera eta kartoia (%9,8) eta kautxuaren eratorriak (%8,8) izan dira.

Gas naturala

Martxoan, gas naturalaren guztizko kontsumoak %15,1 egin zuen gora, 2014ko martxoan izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %12 igo zen eta gainerako sektoreena %15,6.







Lehen hiruhilekoan izandako kontsumoak %15,7 egin du gora, aurreko epealdiaren aldean, (+ %17,3 CCTT-n eta -%15,5 gainerako sektoreetan).

Erregaiak garraioan

Otsailean, garraioan erregaien kontsumoa 1,1 jaitsi zen, 2014. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinarenak %10 egin zuen behera eta A gasolioarenak %0,2.

Azken 12 hilabetean izandako kontsumo metatua %0,2 igo da, aurreko epealdiarekin alderatuta. Hala, gasolinen kontsumoak %2,6 egin zuen behera eta A gasolioarenak, aldiz, %0,5 egin zuen gora.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta








EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan
 Martxoan, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 91,9 milioi kupel izan zen (2014ko martxoan izandakoaren aldean, %1,4 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %2,2 egin zuen gora kontsumoak, 13,4 Mbbpd kantitatera iritsiz; Txinan %3 egin zuen gora, eta 10,5 Mbbpd kontsumitzerera heldu zen; AEBetan, %1,6 igo zen, eta 18,8 Mbbpd kopuruan kokatu zen.
 Munduan, azken 6 hilabeteen, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1 igo da, oro har, Txinan %3,7 eta AEBetan %0,6; Europar Batasunean, berriz, %1,2 jaitsi da.

Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %7 egin zuen gora martxoan, 2014ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Lehen hiruhilekoan izandako kontsumoak %6,6 egin zuen gora.
 Elektrizitatearen kontsumoak ere gora egin zuen martxoan, %2, 2014ko martxoan izandakoaren aldean. Lehen hiruhilekoan izandako kontsumoak %3,1 egin zuen gora.
 Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %3,1 egin zuen gora otsailean, 2014ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %1,3 jaitsi zen, eta gasolioena, ordea, %4 igo zen. Urte mugikorrekotako kontsumoak %1,7 egin zuen gora, 2014koaren aldean, (%0,8 jaitsi zen gasolinena eta %2,3 igo zen gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %9,7 egin zuen gora otsailean; urte mugikorrekotako kontsumoa %3,2 igo zen, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua. AIF eta FIAREN datuetan

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Elektrizitatearen prezioa.

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 43,1 €/MWh izan zen martxoan; duela urtebetekoaren aldean, %61,7 egin zuen gora.

Gas naturalaren prezioa.

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 23 €/MWh izan zen urtarrilean, eta %16,8 jaitsi zen, 2014ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Martxoan, EGIX-en prezioa 21,6 €/MWh izan zen (2014ko martxoan izandakoarekin alderatuta, %0,9 igo zen).

Martxoan, Henry Hub-en prezioa 8,8 €/MWh izatera iritsi zen, 2014ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %26,9 jaitsi zen. Japonian, hil berean, 45 €/MWh izan zen (2014ko martxoan izandakoaren aldean, %10,3 egin zuen gora).

Petrolioaren prezioa.

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 55,8 \$ (51,5 €) izan zen martxoan. Urte mugikorren batez besteko prezioak %20,6 egin zuen behera (-%17,2 eurotan).

Erregaien prezioa.

EAEn, otsailean, gasolioaren prezioa 1,14 €/l izan zen (urtebetean %13,3 jaitsi da), eta gasolinarena 1,2 €/l (urtebetean %12,8 jaitsi da).

CO₂-aren prezioa.

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 6,8 €/t izan zen otsailean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %13,9 egin du gora.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, YCHARTS eta BAFaren